

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

**Gasteizko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko uztailaren 19an hartutako erabakiaren laburpena: Gasteizko Udalak Ingurumenaren arloko jardunbiderik onentzako dituen Itun Berdea Sarien V. edizioa onestea**

BDNS (Identif.): 470114

Dirulaguntzak emateari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan xedatutakoaren arabera, aipatutako deialdiaren laburpena argitara ematen da; horren testu osoa Espainiako Dirulaguntzen Datu-base Nazionalan (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>) eta Gasteizko Udalaren webgunean (<http://www.vitoria-gasteiz.org>) kontsulta daitezke.

#### **Lehena. Onuradunak**

Itun Berdea udal ekimenari atxikita egonik 2018-2019 aldiaren beren prozesu, produktu edo zerbitzuetan ingurumen-inpaktua gutxitzeko neurriren bat ezarri duten Gasteizko udalerriko enpresek.

#### **Bigarrena. Xedea**

Enpresen ingurumen-kudeaketaren eremuan erabilgarritasun praktikoa duten jardunbideen aitortza publikoa eta hedapena, jarraitu beharreko gida edo eredu bihurtu daitezkeen, beste enpresa batzuek bere egin ahal izango dituztenak.

Sari hauetara aurkeztutako jardunbide egokiek Nazio Batuek garapen jasangarriko ezarritako 12. eta 13. helburuak betetzen lagundu behar dute; hau da, kontsumo eta ekoizpen arduratsua, eta Klimaren aldeko ekintza.

#### **Hirugarrena. Oinarriak**

Tokiko Gobernu Batzarrak 2019ko uztailaren 19an egindako ohiko bilkuran onetsiak.

#### **Laugarrena. Zenbatekoa**

Deialdi honek 6.000,00 euroko zuzkidura du, 2019ra luzatutako udal aurrekontuko 0821.4331.489.85 partidaren kontura.

Deialdiaren hiru sari izango dira, kategoria hauetan banatuta:

- 2.000,00 euroko saria, mikroenpresa kategorian (1-9 langile dituzten enpresak).
- 2.000,00 euroko saria, enpresa txikien kategorian (10-49 langile dituzten enpresak).
- 2.000,00 euroko saria, enpresa ertain eta handien kategorian (50 langile edo gehiago dituzten enpresak).

Deitutako hiru kategorietako edozeinetan sariak hutsik geratuz gero, beste kategoria batzuetakoei gehitu ahalko zaizkie, horretarako deitutako epaimahaikide gehienek hala erabakiz gero.

**Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea**

2019ko irailaren 1etik urriaren 4ra artekoa izango da hautagaitzak jasotzeko epea, biak barne.

**Seigarrena. Epaimahaia**

Itun Berdea sarien V. edizioko epaimahaiaren osaera:

- Gasteizko Udaleko Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko Enpresen Zerbitzuko burua edo hark ordezkotzen duen langilea.
- ACLIMA, Euskadiko ingurumen-sektorea biltzen duen erreferentziako Klusterrreko zuzendari nagusia, edo hark ordezkotzen duena.
- Gasteizko Udaleko Ingurumenaren eta Osasun Publikoaren Saileko Energiaren Agentziaren arduraduna.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko uztailaren 22an

*Gasteizko Udaleko Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren  
eta Turismoaren Saileko Administrazio Zerbitzuko burua  
LUCIO CRUCELEGUI Y JÁUREGUI*